

ETXEAN ERABILITAKO LANDARE OLIOA BILTZEKO ETA EDUKIONTZIEN GARBIKETA ETA MANTENTZE-LANAK EGITEKO ZERBITZUA LEHIAKETA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO ESKAKIZUN TEKNIKOEN ORRIAK

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA

Eskakizun tekniko hauen arabera burutuko den kontratuaren objektua da kaleko edukiontzien bidez eta garbiguneetan jasotzen den etxean erabilitako olio biltzea. Halaber, kontratuaren objektua da olio biltzeko kaleko edukiontziak eta beren ingurua maiztasunez garbitzea eta edukiontzien mantentze-lanak egitea.

2. ZERBITZUAREN LURRALDE EREMUA

Zerbitzuak bere baitan hartuko ditu Urola Kosta eskualdeko bost udalerriak: Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia, ondoren datorren taularen arabera:

Udalerrria	Edukiontzien kokapena	Edukiontzi kop.
Aia	Aterpe, San Pedro, Armendigain, Garbigunea	4
Getaria	Harrirate, Kristobal Balentziaga, San Prudencio, Sahatsaga	4
Orio	Anibarko portua, Arrantzale, Iturbide	3
Zarautz	Gipuzkoa, Allemendi, Alzola, Araba, Fuegos, Indamendi, Iturbide, Nafarroa 5, Mitxelena, Nafarroa, Zinkunegi, San Ignacio, Zelai ondo, Zigordia, Zuberoa, Garbigunea	16
Zumaia	Aita Mari, Alai, Amaia plaza, Estazioa, Oikia, Gernika, Zuloaga, Puntaneta, Garbigunea	9
GUZTIRA		36

Nahiz eta olio biltzea eta edukiontzien garbiketa eta mantentze-lanetarako kontratu hau kalean jarrita dauden 36 edukiontzientzat aurreikusi, litekeena da kontratuak irauten duen epearen barruan edukiontzi gehiago jartzea (gehienez ere 50 edukiontzi), kontratua arautzen duten baldintza ekonomiko eta tekniko berberekin.

Horrez gain, kaleko edukiontziez gain, esleipendunak etxeko olio eta beste hainbat hondakin bereiztuta biltzeko bi etxola jarri eta kudeatuko ditu. Birziklatzeko etxola bat Getarian jarriko da, orain dagoen lekuan, eta bestea Aiako herrigunean (kokapen zehatza aurrerago zehaztuko da). Etxola horien ezaugarriak eskakizun tekniko orri hauen 3.6 atalean daude zehaztuta.

3. ZERBITZUA EMATEKO ERA

Erabiltzaileek etxean erabilitako olio kalean jarritako edukiontzietan utzi ahal izango dute edozein ordutan eta egunetan.

Erabilitako etxeko olio biltzeko zerbitzuak jasoko du batetik, kaleko edukiontzietan utzitako olio eta, bestetik, Urola Kostako Udal Elkartearen garbiguneetako edukiontzietan jasotakoa. Esleipendunak garbiguneetako olio bilduko du garbiguneen ordutegiaren barruan.

Garbiguneetan erabiltzaileek ekarritako olioak bilduko da 50-60 litrotako ontzietan. Esleipendunak ontzi beteak eraman eta horien ordean ezaugarri bereko ontzi garbi eta hutsak utziko ditu.

3.1. BILTZEKO SISTEMA

Esleipendunak olioak bilduko du eskuz edo sistema mekanikoak erabiliz, betiere bilketa segurtasun osoz egiten dela eta lurrera oliorik ez dela isuriko bermatuta.

Nolanahi ere den, esleipendunak plan bat eta prozedurak aurkeztu ditu, istripuz olioak isuriz gero euri-urak bideratzeko ubideetara iristea saihesteko (isuriari eusteko eta isuria xurgatzeko kontratuak bere esku izango dituen osagaiak, jarraibideak...).

Esleipenduna izango da edukiontzien, beren edukiak edo kontratuaren objektu diren zerbitzu eta lanek beste batzuei edo ingurumenari eragin diezazkiekeen kalteen erantzule.

Esleipendunak diseinatuko ditu, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoekin elkarlanean, kaleko edukiontzietan nahiz garbiguneetan jasotako olioak eraginkortasunez biltzeko ibilbideak.

Edukiontzia bat beteta edo erabili ezinik baldin badago, esleipendunak edukiontzia hustu edo konpondu eta erabiltzeko moduan jarriko du, gehienez ere 24 orduko epearen barruan, Udal Elkarteak jakinarazpena edozein egun eta ordutan egiten duela ere.

Etxean erabilitako olioak edukiontzietatik biltzeko lanetan esleipendunak ikusten badu edukiontzia ondoan olioak betetako ontziren bat dagoela, ontzi hori jaso eta edukiontziko olioarekin batera kudeatuko du, kanpoan dagoen ontziaren itxura eta izaera edozein dela ere.

Halaber, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek esleipendunari jakinarazten badiote edukiontzia baten ondoan (kanpoan) olioak duten ontziak daudela, esleipendunak bildu egingo du, 24 orduko epearen barruan, agindua jasotzen duenetik hasita.

3.2. OLIOA BILTZEKO MAIZTASUNA ETA EGUTEGIA

Esleipendunak egutegi bat finkatuko du, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoekin oniritziarekin, jarritako edukiontzia bakoitza husteko maiztasuna zehaztuz. Horretarako, kontuan hartuko ditu zerbitzua indarrean jarri eta lehen hilabetean edukiontziz edukiontzia jasotzen diren erabilitako olioaren kopuruak.

Hiru hilean behin Udal Elkarteak bilketa-egutegi hori berrikusi egingo du eta, beharrezkoa baldin bada, aldatu.

Horrekin batera, esleipendunak ibilbide egokienak finkatuko ditu, zehaztutako bilketen maiztasunari ahalik eta ondoen egokitzeko.

Edukiontzia husteko ibilbideetan edozein aldaketa egiteko, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoekin oniritzia jaso beharko da alde aurretik.

Garbiguneetan etxean erabilitako olioak jasotzeko jarritako ontzi edo bidoiak husteko maiztasuna ezarriko da ontzi horien betetze-mailaren arabera.

Garbigune bakoitzean ez dira inola ere etxean erabilitako olioak jasotzeko lau bidoi edo ontzi baino gehiago egongo.

Esleipendunak garbiguneetan jarritako bidoi edo ontziak jasotzeko lanak egingo ditu garbiguneak zabalik dauden ordutegian:

- Astelehenetik ostiralera: 8:30etik 13:30era eta 16:30etik 18:30era. Larunbatetan: 10:00etatik 12:00etara.
- Igande eta jaiegunetan: Itxita.
- Abuztua: 8:30etik 13:30era.

3.3. EDUKIONTZIEN ETA EKARPEN EREMUEN GARBIKETA

GARBIKETA LANAK

Atal honetan zehazten diren garbiketa eta mantentze-lanek ez dute Udal Elkartearentzat gain kosturik ekarriko.

Erabilitako etxeko olio jasotzeko edukiontziaeren ekarpen eremutat hartuko da edukiontziaeren kanpoaldeko bi metroko itzulingurua.

Olio edukiontziaeren inguruko eremua zikin dezakeen hondakinak denez, hilean behin edukiontzi bakoitzaren ekarpen eremua garbituko da. Garbiketa lan horietan honakoak egingo dira gutxienez:

- Ekarpeneremua erratzaz garbitu.
- Lurrean dauden olio orbanen sustantzia koipe gabetzaileak aplikatu.
- Disolbatutako olio jaso sustantzia xurgatzaileekin.
- Bukaerako garbiketa erratzaz.

Esleipendunak prozedura eraginkor bat prestatuko du edukiontzien ekarpen eremuak egoki garbitzeko.

Edukiontziak hustu eta etxean erabilitako olio erretiratzeko lanetan ezbehar bat gertatu eta olio lurrera isurtzen bada, esleipendunak isuria gerarazi eta isuritako olio jasotzeko plana jarriko du martxan. Larrialdiko lanak egin ostean, esleipendunak isurketak eragindako eremua garbitzeari ekingo dio, aurreko paragrafoetan zehaztutako eran.

Horrez gain, hilean behin edukiontziak kanpoaldetik garbituko dira eta kendu egingo dira margo eta kartelak (baleude). Beharrezkoa baldin bada ordezkatu egingo dira Udal Elkarteak jarritako euskarriak.

Betetako ontziak biltegitratzeko sistema edo edukitzailea beti garbi egongo da eta olio isuririk gabe. Halaber, edukiontziaeren barrualdea garbi egongo da eta ez da inola ere kanpoaldetik edo etxeko olio uzteko unean olio aztarnarik atzemango.

Kontratuaren amaieran Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek zehaztuko dute edukiontziak margotzea eta itsatsitako bereizgarriak berriz jartzea beharrezkoa den ala ez.

Garbiketa lan guztiak, ohizkoak nahiz ezohikoak, dokumentu bidez erregistratuta geratuko dira eta Udal Elkarteari jakinaraziko zaizkio.

Esleipendunak erregistro digital bat egingo du, edukiontzietan eta ekarpen eremuetan egindako garbiketa-lanak erregistratzeko.

MANTENTZE-LANAK

Esleipendunak behar diren mantentze-lan guztiak egingo ditu edukiontzien behar bezala funtzionatzeko, Udal Elkartearentzat gain kosturik gabe. Lan horietan sartzen dira, baita ere, edukiontziak edo horien osagaiak ordezkatzeko lanak, jatorrizko edukiontzia behar bezala ez badabil edo itxura aldetik egokia ez bada.

Edukiontzien baten mantentze-lanak egiteko edukiontzien horien kaletik erretiratu egin behar baldin bada, esleipendunak horren ordez beste bat jarriko du, kendutakoaren ezaugarri bertsuak dituen, jatorrizkoa konpondu eta berriz ere bere lekuan jarri arte.

Gisa horretako lanak egiteko esleipendunak Udal Elkarteko zerbitzu teknikoaren berariazko baimena izan beharko du.

Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek atzematen badute edukiontzien bat matxuratuta dagoela edo oker dabilela, esleipendunak edukiontzien horien aztertu eta atzemandako gabezia konpondu beharko du, gehienez ere 24 orduko epearen barruan.

Egiten diren mantentze-lan guztiak (prebentziokoak nahiz matxurak konpontzekoak) dokumentu bidez erregistratu eta Udal Elkarteari jakinaraziko zaizkio.

Esleipendunak erregistro digital bat egingo du, edukiontzietan egindako mantentze-lanak jasota uzteko.

3.4. JASOTAKO OLIOA PISATU, GARRAIATU ETA ERAMATEA

Baimendutako kudeatzaileari entregatzen zaion etxean erabilitako olio pisatu egingo da. Pisatzeko lanak egingo dira arauzko eran kalibratutako baskulatan eta, ahal dela, beti baskula berean. Urola Kostako Udal Elkarteak eskubidea du egoki irizten duenean kontrasteko pisatzeak egiteko. Baloratuko da bildutako edukiontzien bakoitza bereiz pisatu ahal izatea. Besterik ezean, unitate bolumetrikotik eman ahal izango dira datuak.

Garbiguneetan bildutako olioaren bolumena adieraziko da.

Olioaren garraioan beteko da sustantziak garraiatzeko indarrean dagoen araubidea.

Etxean erabilitako olioaren azken helmugari dagokionez, honako alderdiak justifikatu beharko dira:

- Baimendutako azken kudeatzailearen onarpen agiria, Urola Kostako Udal Elkartean jatorria duen etxean erabilitako olioaren jaso duela adierazten duena.
- Erabilitako olioaren uzteko ontzia berariazkoa bada, dokumentu bidez justifikatu beharko da ontziak egindako ibilbide osoa eta bere erabilpena amaituko duen azken helmuga.

Etxean erabilitako olioaren eta olioaren uzteko ontziak kudeatzeko ibilbide osoa burutuko dela bermatuko da.

3.5. TXOSTENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Esleipendunak honako txosten eta komunikazioak egin eta helarazi behar dizkio Udal Elkarteari:

Bilketako txostena: bilketa egun bakoitzeko txosten bat bidaliko du esleipendunak; honako informazioa izango du gutxienez txosten horrek:

- Bilketa-ibilbidearen data eta ordutegia
- Ibilbidearen kilometroak
- Bildutako edukiontzien identifikazioa
- Edukiontzien bakoitzaren betetze-maila
- Edukiontzien bakoitzean jasotako kopurua eta lanaldian jasotako kopuru osoa
- Gorabeherak

Txosten hori Udal Elkarteari bidaliko zaio 48 orduko epearen barruan, dagokion bilketa-eguna amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Garbiketa edo mantentze-lanen txostena: Garbiketa edo mantentze-lan bakoitzeko txosten bat bidaliko du esleipendunak; honako informazioa izango du gutxienez txosten horrek:

- Garbiketa edo mantentze-lanaren eguna eta ordutegia
- Edukiontziaaren identifikazioa
- Egindako garbiketa edo mantentze-lanak
- Gorabeherak

Txosten hori Udal Elkarteari bidaliko zaio 48 orduko epearen barruan, dena delako garbiketa edo mantentze-lanak amaitzen direnetik zenbatzen hasita.

Hileko txostena: hileroko txosten bat bidaliko du esleipendunak; honako informazioa izango du gutxienez txosten horrek:

- Jasotako erabilitako olio kopuruak, edukiontziak eta entrega puntuak bereiz adierazita, garbiguneak barne.

Hileko txosten hori Udal Elkarteari bidaliko zaio 5 eguneko epearen barruan, dagokion hilabetearen amaieratik zenbatzen hasita.

Urteko txostena: Udal Elkarteari urteko txostena aurkeztuko zaio; txosten horrek honako informazioa izango du gutxienez:

- Olio jasotzeko gune bakoitzean (edukiontziak eta garbiguneak) hilez hil jasotako olioaren bilakaera.
- Urola Kostako Udal Elkarteak udalerrira bakoitzean jasotako etxean erabilitako olio kopuruen konparaketa.
- Txostenak hizpide duen urtean izandako gorabeherarik esanguratsuak.
- Birziklatzeko etxoletan jasotako hondakin eta kopuruen informazioa.

Urteko txostena Udal Elkarteari bidaliko zaio 15 eguneko epearen barruan, dagokion urtealdiaren amaieratik zenbatzen hasita.

Halaber, esleipendunak Udal Elkarteari jakinaraziko dizkio zerbitzua eskaintzen gertatzen diren gorabehera guztiak, telefonoz (Udal Elkarteak izendatzen duen pertsonari deituta) edo mezu elektronikoa bidaliz (Udal Elkarteak zehazten duen helbidera).

Billetako txostenak, garbiketa/mantentze-lanen txostenak, hileroko txostenak eta urteko txostenak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko dira, formatu elektronikoa (pdf formatuan eta testuak editatzeko formatu estandarren batean) eta bidaliko dira Udal Elkarteak zehazten duen helbidera. Udal Elkarteak erabaki ahal izango du txosten horiek euskaraz soilik eskatzea.

Fakturak eta gorabeheren komunikazioak emailaz bidaliko dira, Udal Elkarteak zehazten duen helbidera eta euskaraz egingo dira.

3.6. BIRZIKLATZEKO ETXOLAK

Kaleko edukiontziaz gain, esleipendunak etxeko olio eta beste hainbat hondakin bereiztuta biltzeko bi etxola jarri eta kudeatuko ditu. Birziklatzeko etxola bat Getarian jarriko da, orain dagoen lekuan (Harritarte pasabidean), eta bestea Aiako herrigunean (kokapen zehatza aurrerago zehaztuko zaio esleipendunari).

Interes orokorreko arrazoiak direla medio, Udal Elkarteak eskubidea izango du etxolak lekuz aldatzeko. Lekuz aldatzeko lanak esleipendunak egingo ditu, esleipen prezioaren barruan.

Jarri behar diren etxolek honako ezaugarriak izan behar dituzte, gutxi gorabehera (neurri eta ezaugarri hauek erreferentzia gisakoak dira; atal honen amaieran une honetan Getarian jarrita dagoen etxolaren argazkiak ere ageri dira, adibide gisa). Lehiatzaileek beren eskaintzetan ezaugarri horiek edo antzekoak dituzten proposamenak egin behar dituzte; eskaintzen duten etxolak eskakizun teknikoen orriotatik eratorzen diren funtzioak egoki betetzeko baldintzak bete beharko ditu:

Egitura: metalezko etxola sendoa, hondakinak botatzeko hainbat aho dituen.

Neurriak: Zabalera eta luzera: 200 cm x 380 cm; Altura: teilatuaren oinarriraino 185 cm; teilatuaren tontorreraino 267 cm

Hondakinak jasotzeko ahoak (ahoen neurriak hondakinaren arabekoak izango dira). Getariako etxolan honako hondakinak jasoko dira bereiztuta: olioak, aparailu elektriko txikiak, arropa, pilak, erradiografiak, aerosolak, garbiketako produktuak, tonerrak, pinturak, kotxeko olioak, fluoreszenteak, kontsumo baxuko bonbillak. Aiako etxolan zein hondakin bilduko den aurrerago zehaztuko da.

Etxoletan jasotzen diren hondakinak Udal Elkarteak adierazitako kudeatzailearengana edo garbigunera eramango dira.

Lehiatzaileek eskaintzen duten prezioan sartuta egongo dira etxolak jarri eta kudeatzeko gastu guztiak: etxolen alokairu edo erabilpena kontratuak irauten duen epearen barruan; etxolak jartzea; etxolen garbiketa eta mantentze-lanak; hondakinak jaso eta Udal Elkarteak zehaztutako kudeatzailearengana edo garbigunera eramatea.

Etxolaren diseinuaren proposamena (etxola bera, kolore eta pintaketa, seinaleak, ahoen diseinua...) esleipendunak landu eta Udal Elkarteari aurkeztuko dio, oniritzia eman dezan.

Etxolako hondakinak gutxienez hilean behin erretiratuko dira.

Etxolak beti erabiltzeko egoera onean eta garbi egongo dira. Esleipendunari dagokio beharrezko diren garbiketa eta mantentze-lanak egitea.

Halaber, olio bilketari buruzko hileroko txostenean etxoletan jasotako hondakinei buruzko informazioa agertuko da. Txosten horretan bereiz adieraziko dira etxola bakoitzean jasotako hondakinak eta kopuruak.

